



Emakume langilliak Oñatiko fabriketan



Gaur egun emakumiak industria-lanetan jardutia normala dan arren, sasue batian etzan hola leku gehixenetan. Hala ta guztiz be, gure inguru honetan **Oñati**, Bergarakin batera akaso, **desbardiña zan** beste herri batzuekin konparau ezker: aspalditxotik, **andrazko langille ugari** ibilli zan hemengo tailler eta fabriketan, Oñatin sortu ziran enpresen ezaugarriak hori eskaketan euelako, biharbada.

Gure herrixan lehenengo industria modernua **Kornelio Garai** **bedoñatarrak** Goribar auzoko ola zaharrian **1864an jarri eben** **pospolo-fabrikia** izan ei zan. Gorabehera batzuekin **1903ra** arte iraun eben. **Hirurehun bat langille** eukittera aillegau zan, **emakumiak eta umiak gehixenak**, zeregin haretarako egogixaguak ziralako eta gizakumiari baiño gutxiago pagaitten xatelako, seguru asko. Hemezortzi bat urteko tartiarekin **1921an zabaldu zittuan berraro atiak Garai** fabrika. Orainguan **guardasolentzako monturak** eta era askotako **odixak (tubuak)** egitteko. Harrezkero, ixa ehun urtian, emakume oñatiar askok jardun dau Garaiñeko fabrikante moduan, guardasolen saillian batez be.

Baiña etzan ha emakumiari lana eskintten otsan enpresa oñatiar bakarra. Jakiña da **txokolaterixak** hemen euki euen inportantzia. Aurretik tailler txikiñak baziran be, **1938tik** aurrera lantegi haundixaguak sortu ziran: **Loyola** eta **Zabor**, adibidez. Txokolate-fabrika honeittan neska ugarik topau euen lan-lekua eta geldiketan dan **Natra-Oñati** izenekuan be emakumiak izango dira langillerik gehixentsuenak. Kale Zaharrian lehenengo eta Ibarra ondoen jaso zen **Tximist** (Cegasa) **pila-fabrika** eta Ibarra bertan egon zan **Dyna** (Solaun y Rubio geruago) **plantxa-fabrika** be andra dezente ibili zan lanian. Eta ezin ahaztu Oñatiko hiru zotz-lantegittan jardundakuak: Zubillagako **El avión**, Madalenako **Nik** eta Lezesarriko **Betik** izeneko **palillo-fabriketan**.

Argazkixan agerketan diran emakume eta gizonak Garaiñeko fabrikantiak ziran **1956xan**, guardasolen montajian eta nikelian ebitzein batzuk. Goittik behera eta ezkerretik eskumara honeitxek dittuzue:

Karmen Arriaran, Lekunbarrikua; **Pili Txintxurreta**, Bidebarrietakua; **Maria Etxaniz**, Kale Zaharekua; **Narziso Zubizarreta**, San Antue kaleko leiztarra; **Rafael Madinabeitia**, Kale Zaharrekua; **Andres Urresti**, Atzeko kalekua; **Modesta Aranburu**, Kale Zaharrekua; **Fermin Zubia** Olabarrietako Muñokoa; **Marilu Ugarte**, Arantzazu kalekua; **Martzelino Axpe**, Garagaltzako Santipillau baserrikua; eta **Luis Zilaurren**, Lekunbarrikua.

J. E.

Fotografixia Garai fabrika orduan Goribargoitti baserrira begira eukan atzekaldian atarata dago. Eztakigu nor izan zan argazkilarixa. Guri Karmen Arriaranek eskuratu dosku. Argibidiak, berriz, Karmenek berak, Joxe Mari Jauregialtzo, **Paikok**, eta Felisa Ormazabalek emundakuak dira. Milla esker!